



Asteasuko Arretxe baserria kiskali du guztiz sute batek

EZBEHARRA ▶ Kalte material handiak eragin baditu ere, lau bizilagunek ez dute zauririk jasan ▶ 7



Arretxe baserriaren egoera, atzo eguerdian, aurrealdetik eta atzealdetik, sutearen ondoren. I. GARCIA

ZIZURKIL ▶

Merkataritzan euskara sustatzeko akordioa sinatu dute

Kartelak euskaraz idaztea eta zerbitzua euskaraz ematea, xedeak ▶ 4

AMEZKETA ▶

Ugarte auzoko jaiak gaurtik igandera

Hiru zaldi ikuskizun, musika emanaldiak eta haurrentzako ekitaldiak antolatu dituzte ▶ 5



lazko jaiak. M. S. S.

LEITZA ▶

Maxurrenea «herriari itzultzea» exijitu du Udalak osoko bilkuran

18/98 auziaren aurkako eta presoen aldeko mozioak ere onartu dituzte ▶ 7

Gure gomendioa



Pilar Miró
Diego Galán



Cocinar de cine
Iñaki Gubiernez / J.M. Gubiernez



Zaharregia, talaingia agian
Iñaki Gubiernez



Orreka TX
Quercus Enstropina



ekar

ekar ezagutzen dugulako

TOLOSA ▶ AZOKA

ESTI EZEIZA

Urtero legez, bihar Tolosako Ferialekuan ospatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako Udalak eta Kutxak antolatutako Probintziako 37. Abelgorri Lehiaketa. Aurreko urteetan, egun berean, Tolosako Gazta Lehiaketa egiten bazen ere, aurten ez da izango, eta aurrera begira, lehiaketa hori nola egin pentsatzen ari dira.

Abereak sei talde nagusitan banatuko dira. Lehenengoan, Suitzar arrazakoak; bigarrenan, Frisoiak; hirugarrenean, Pirenaikak; laugarrenean, Blondak; bosgarrenean, Limousinak, eta azkenik, Txarolesa arrazakoak. Bestalde, multzo bakoitza zenbait aletan banaturik egongo da.

Lehiaketa bukatu ondoren, bost bigara zozketatuko dira, liburu genealogikoetan auziada izena emanda dutenen eta Ferialekuan dauden ganaduzaleen artean. Lehiaketatik kanpo, Gipuzkoan jaito eta hazitako bigantxak jarriko dira salgai azokan, enkante bidez. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak 150 eta 300 euro bitarteko diru-laguntza emango du buru bakoitzeko.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, 08:00ak baino lehen eraman beharko dira abelgo-

Ferialekua, abelgorrien bilgune, bihar

Gipuzkoako 37. Abelgorri Lehiaketa egingo dute bihar, goiz osoan zehar



Joan den urteko Probintziako 36. Abelgorri Lehiaketako une bat. i. g.

ABELGORRIEN BANAKETA TALDEETAN ▶

SUITZA ARRAZAKOAK

- ▶ 18-30 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 2 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).
- ▶ 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak).

FRISOI ARRAZAKOAK

- ▶ 12-18 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 18-30 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 2-3 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).
- ▶ 3 urtetik 4 urte bitarteko behiak (ume egindakoak).
- ▶ 4 urtetik 5 urte bitarteko behiak (ume egindakoak).
- ▶ 5 urtetik gorako behiak (ume egindakoak).

PIRENAIKA ARRAZAKOAK

- ▶ 10-20 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak).
- ▶ 20-30 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak).

- ▶ 2 urte eta erditik 5 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).
- ▶ 5 urtetik gorako behiak (ume egindakoak).

BLONDA ARRAZAKOAK

- ▶ 12-24 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 2 urtetik 3 urte bitarteko bigarak.
- ▶ 3 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).
- ▶ 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak).

LIMOUSINA ARRAZAKOAK

- ▶ 12 eta 24 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 24-36 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).
- ▶ 3 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).
- ▶ 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak).

rriak. Eta honako osasun-agiriak izan beharko dituzte: osasun kalifikazioa indarrean daukaten azientako ustiatuegiak izan beharko dute, eta osasunketa, gehienez ere, hila-bete bat lehenago egin izana-

ren ziurtagiria erakutsi beharko dute. Horretaz gain, soinean izan beharko dute, aberearen jatorrizko eta osasunaren gida. Izena eman ahal izateko, pasaporte edo DIBA ere beharrezkoa izango da.

VILLABONA ▶ KULTURA

Herriaren inguruko 'Villabona barne barnetik' izeneko DVDa aurkeztu dute

Historia, tradizioa, gastronomia eta kultura bildu ditu Galdare komunikazio enpresak, 20 minututako dokumental batean

E. EZEIZA

Villabona barne barnetik izenburupean, Galdare ikus-entzuzko komunikazio enpresak gauzatutako DVDa aurkeztu zuten herenegun.

Hogei minutu irauten duen

dokumental honetan, 2005. urtean herrian zehar bildutako irudiak ikusi ahal izango dira. Epe horretako gertaera adierazgarrienak grabatu dituzte-larik. Villabonako historia, kultura, gastronomia eta tradizioa ezagutzeko aukera luzatu nahi

izan dute honekin egileek. Hala, Galdarekoen esanetan, «billabonatarrek ere, DVD honetako zenbait irudi ikustean, harrituta geratuko dira, irudi oso lortuak baitira». Lan hau burutu ahal izateko, Galdare enpresakoak, herritarrekin eta taldeekin elkartu ziren, dokumentalean agertzea nahi zute-




Barne barnetik DVDan, Villabonako jaietako irudiak ikus daitezke. n.u.

naren gidoi bat osatu ahal izateko.

DVDa eskuratu nahi duenak, astelehenean aurrera egin ahal izango du, hiru euroren

truke. Hau, Villabonako lau puntutan egongo da salgai: Mirari, Periodista eta Basajaun liburudendetan. Baita ere, Udal liburutegian.

|  FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA | | | |
|--|--------|------------|-----------|
| IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA) | ORDUAK | HASIERA | ORDUTEGIA |
| Materiaren ensaiuak | 40 | 2006-10-16 | 18 - 21 |
| Planuen interpretazioa | 50 | 2006-10-23 | 18 - 21 |
| CNC FRESAGAILU-ko makinaren programazioa (Heindeinhein) | 46 | 2006-10-23 | 18 - 21 |
| Textu tratamendua, kalkulu orria eta data baseak (Hastapena) | 40 | 2006-10-23 | 18 - 21 |
| Fabrikazio prozesuak | 60 | 2006-11-13 | 18 - 21 |
| Berokuntza-instalazioak muntatzea | 40 | 2006-11-13 | 18 - 21 |
| PLC-en programazioa (SIEMENS S-7) | 60 | 2006-11-13 | 18 - 21 |

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA
 idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrikiariak, arotzak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.
Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrariak, mantenimendua. 943 31 37 82.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Tolosaldean 4 orduz lan egiteko. Eskarmentuduna. Telefonoa: 635 74 52 91.
Ile-apaintzailea. Tolosan ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte-segurantza. Deitu 625 70 50 59ra.


TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. «Ehiza garaian gaude. Usoetara eta birigarroetara ehiztari asko joaten dira. Gero oilgorretara. Ehiza honen alde al zaude?» Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia. Anima zaituzte, eta esan zer pentsatzen duzun.

AZPIEGITURAK ▶
Tolargik argindar mozketak egingo ditu astelehenean

«Bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», instalazioetan hobekuntza eta mantenimendu lanak egiten dabilta Tolargiko langileak. Hori dela eta, hurrengo egunetan argindar mozketak egingo dituztela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, datarren astelehenean, hilaren 9an egingo dute Samani-ego kaleko 2. zenabkian 08:15etik 11:15era.

ERLIJIOA ▶
Pastoral Urteari emango zaio hasiera etzi

Santa Maria Parrokian, etzi, 11:00etako mezan, emango zaio Pastoral Urteari ofizialki hasiera. Bertan elkartzera deitzen zaie pastoralgile guztiei, eta baita guraso eta katekesian laster hasiko diren haurrei ere.

KIROLAK ▶
Zesta-puntako partidak asteburuan

Gipuzkoako Zesta-punta Txapelketako partidak jokatu dituzte Beotibarrek asteburuan. Gaur, 18:45ean kadeteetan, Tolosako Beotibarren, Donostia 2 Zumaia 2ren aurka eta Donostia 1 Beotibar 2ren aurka ariko dira. Zumaia-ko Odietan, kadeteetan, 18:30etik aurrera, Zumaia 1 eta Beotibar 1 taldeak lehian dira, eta Tolosako Uzturpe pilotalekuan, berriz, nagusietan, 20:00etan, Donostia 1 Zumaia 3ren aurka, eta Donostia 3 Beotibar 1en aurka ariko dira. Igandean, Beotibar 3 eta 4ren partidak izango dira 11:00etatik aurrera Uzturpen.

KULTURA ▶


Los Fastuosos de la Rivera taldea gaur ariko da Frontonen. HITZA

Musika eta antzerkia, Frontonen

Gaur, Los Fastuosos de la Rivera taldearen kontzertua; bihar, '69 cigarillos' obra ikusgai

ENERITZ MAIZ

Los Fastuosos de la Rivera taldeak, gaur gauean, 23:00etan, eskainiko du kontzertua, Fronton kafetegian. 80. hamarkadan sortutako talde honen emanaldia, doan ikusi ahal izango da.

Musika beltza aitzakiazat hartuz, ondo pasa eta gozatzeko, elkartu zen lagun talde hau. Beraien lehen lana, 1996.urtean kaleratu zuten *Reserva del 96*; bigarrena, handik lau urte-tara etorri zen *Dios los junta*, eta azkena, duela bi urte *Hot sessions* izan zen. BilboRock, Azkena, EmbunRock eta Kafe Antzokitik, besteak beste, pasa ondoren Tolosara iritsi dira.

Oraindik ere gogor eusten diete hasierako helburuei, «bizitza aurrera, ahalik eta ondoren eramatea», eta, «ziurtatua

dago zuzeneko erakargarri bat».

'69 cigarillos' antzerkia

La Botika Caceres-eko (Espainia) kafe-teatro taldeak, bihar, 23:00etan aurkeztuko du *69 cigarillos* emanaldia Fronton kafetegian.

18 urtetik gora daramatza talde honek, eta jada, berrogei lanetik gora ditu aurkeztuak. Oraingoan, hiru pertsonaiek, sexuaren inguruan, «inongo lotsarik gabe eta umorea sartuz» hitz egingo dute, bizitzako egoera normaletan oinarrituz eta erromantizismoa alde batera utziz. Bikotea eta zerbitzariaren elkarriketak, zuzeneko musikaz lagunduak izango dira. La Botikakoek, jakinarazten dute, «antzezlan hau ikustea, ona dela osasunerako».

MUSIKA ▶

Chicarela eta Une, gaur, Bonberenean

Bihar Biok eta Pog Mo Thon taldeen zuzenekoak izango dira ikusgai

E. MAIZ

Bonberenean, gaur, Chicarela eta Unek eta bihar, Biok eta Pog Mo Thon taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30etatik aurrera.

Nafarroatik dator Chicarela, Flitter taldeko gitarra-jolearen talde berria. Gaztea bada ere, «kantua jotze soiletik haratago doa». Une taldea berriz, Sen taldeko abeslariaren proiektu berria da, eta beraien kantua ezagutzera

emateko asmoz datoz Bonberenean.

Biharko bi taldeak, Biok eta Pog Mo Thon, Bizkaitik datoz. Lehenak, *Margo debekatuak* lana eskainiko du eta bigarrenak, euren lehen lana aurkeztera etorriko dira, *Itzalitako argi bakoitzeko* izenekoa.

Beraz, asteburu honetan, musikaz gozatu nahi duenak, badu aukera Bonberenean, lau talderen artean, hain zuzen.

GIZARTEA ▶

Zeinu hizkuntzako poesia, Kultur Etxean

Hitzaldiaren ondoren, poesia errezitatuko dute; matrikulatzeko aukera ere zabalik

E. MAIZ

Gainditzen, Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak, bigarren urtez, zeinu hizkuntzako poesiari buruzko hitzaldia antolatuko du, Tolosako Udalaren laguntzaz. Gaur, 19:30ean, izango da Kultur Etxean, eta *Zeinu hizkuntzako poesia: sarrera* da izenburua.

Hizlariak, Javier Fernandez eta Martha Kaperotxipi izango dira. Hitzaldi honekin, jakitera eman nahi dute, zeinu hizkuntzak, hizkuntza natural guztiak bezalaxe, literatur formak dituela. Zeinu hizkuntzako poesiaren ezaugarriak aztertuko dituzte, batez ere, ahozko hiz-

kuntzetako poesiarekiko dituzten ezberdintasunak eta berdintasunak azpimarratuz. Hitzaldia amaitu ostean, Tolosako bigarren urteko poesia errezitatuko dute eta interpretatuko egongo da.

Bestetik, norbaitek ikasi nahiko balu, hilaren 10a bitartean, lehen mailan matrikulatzeko aukera badu. Orduetara astelehenean eta asteazkenean, 16:45etik 18:45era edota asteartean eta ostegunetan, 09:00etatik 11:00etara izango litzateke. Informazioa eskuratu nahi duenak edo bertan izena emateko interes duenak 666 63 71 58 telefono zenbakira deitu beharko du.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Rafael Alonso Alonso
Herenegun hil zen, 58 urte zituela.
-Goian bego-

Une latz hauetan familiaren saminarekin bat egiten dugu.

Zure alabaren koadrilakoak.

BEASAIN, 2006ko urriaren 6a

ZIZURKIL ▶ MERKATARITZA

Merkataritzan euskara sustatzeko akordioa sinatu dute

Saltegiatoko karteletan euskarak presentzia izatea eta zerbitzua euskaraz ematea, hitzarmenaren helburuak



Hitzarmena sinatu duten zenbait merkataritza Udaleko ordezkariekin batera. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Euskara merkataritzara hitzarmenaren ekitaldi publikoa burutu zuten, herenegun arratsaldean, Zizurkilgo Udalak eta akordioa sinatu duten herriko hainbat merkatarik. Bertan, bi aldeek sinatutakoaren ziurtagarria jaso zuten merkatariek.

Guztira 22 saltegiak ondoko konpromisoak sinatu dituzte:

zerbitzua euskaraz eskaintzea, hizkuntza paisaia euskaraz edo elebitan jartzea eta konpromisoak betetzeko behar den informazioa eta behar diren neurriak hartzea. Udalak, bere aldetik, ondoko konpromisoak hartu ditu: hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskaintzea; merkataritzako hainbat material eskaini eta prestatuta ematea; errotu-

lua euskaraz jartzeagatik %50eko diru laguntza, 300 euroko mugarekin; euskarazko ikastaroetara joateko diru laguntza (matrikularen %75a); hitzarmenaren jarraipena egin eta egoeraren bilakaerari buruzko azterketak egitea; eta euskaraz egiteagatik merkatariek gehiago ordaindu behar badu, gainkostu horren zati bat bere gain hartzea.

«Betidanik elebitan jartzen ditugu kartelak»

Udalarekin akordioa sinatu duen dendetako baten jabeek dira Maider Amundarain eta Maria Eugenia Gonzalo. Maider eta Maria Eugenia izeneko mertzeria dute. «Lehen ere jarrita geneukan dendan euskaraz hitz egiten dugula», azaldu diote TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI hitzarmena sinatzeko arrazoia galdetzean.

Bezero euskaldunak joaten direla azaldu dute: «Gehientzuenak euskaraz hitz egiten dute». Mertzeri batean saltzen

diren zenbait produktuen izenak gazteleraizkoak erabiltzen ohi direla ere azaldu dute.

Hitzarmena sinatu aurretik, jabeek beraiek ere txartel guztiak elebitan jartzeko konpromisoa hartuta zuten. «Betidanik, erakuslehoian zerbait jartzen dugunean euskaraz eta gazteleraiz jartzen dugu». Hain zuzen ere, sinatutako akordioaren bitartez, txartelak euskaraz zuzen jartzeko Udalaritza laguntza eskatuko diotela azalzen dute. ◀



Maider Amundarain eta Maria Eugenia Gonzalo. I. GARCIA

MERKATARIAK ▶

Udalarekin akordioa sinatu duten saltegiak.

- ▶ Azurmendi harategia
- ▶ Electricidad Zizurkil
- ▶ Garazi loradenda
- ▶ Gorosabel farmazia
- ▶ Joxean harategia
- ▶ Lertxundi harategia
- ▶ Natur House
- ▶ Maider eta Mª Eugenia
- ▶ Ogi-Zuri okindegia
- ▶ Zaldua dekorazioa
- ▶ Zaldua janari-denda
- ▶ Zubi autoeskola
- ▶ Abelebe aterpea
- ▶ Atxulondo taberna
- ▶ Aurrera taberna
- ▶ Beibategi jatetxea
- ▶ Bordaxo taberna
- ▶ Egarrri taberna
- ▶ Elizondo taberna
- ▶ Izarra taberna
- ▶ Muxkil taberna
- ▶ Plaza Etxeberri jatetxea

Marian Lazkano alkateak eskerrak eman zizkien merkatariei «herrian euskararen erabilera sustatzen laguntzeagatik. Ziur gaude esfortzu hauek guztiak ez direla alferrikakoak izango».

Lazkanok nabarmendu zenez, euskara «gero eta esparru gehiagotara ari da zabaltzen» eta, hain zuzen, hori da Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu estrategikoetako bat. «Zizurkilgo Udalak bat egiten du plan horrekin eta merkataritzak herritarren egunoroko bizitzan duen garrantzia eta alor horretan euskararen erabilera normalizatzea bere erabilerran duen eragina kontuan hartuta» bultzatu dute hitzarmen hau.

ANOETA ▶

Batzarra egingo du bihar ezker abertzaleak

Ezker abertzaleak batzarra egingo du bihar, 10:30etik aurrera, udaletxean. Jorratuko diren gaiak ondorengoak dira: balantzea eta kokapen politikoa, aurrera begirako ildoak eta plangintza. Azken honetan autodeterminazioaren dinamika eta udal haueteskundeak puntuak landuko dituzte. Antolatzaileek deia luzatzen diete Anoetako ezkertiar eta abertzale guztiei parte hartzeko.

ASTEASU ▶

Oinkariren 'Oroituz', gaur frontoian

Gaur gauean Oinkari dantza taldeak *Oroituz* bere azken emanaldia eskainiko du Asteasuko pilotalekuan, Kultur Jardunaldien baitan. Emanaldiari 22:30ean emango diote hasiera eta bertan hainbat dantza tradizionaleraino gain, Edu Muruamendiarazek prestatutako koreografiak izango dira ikusgai. Oinkari-koek zuzeneko musika izango dute lagun, Xanet Arozoren gidaritzapean.

ASTEASU ▶

Ezker abertzaleak bilera egingo du Kultur Etxean

Ezker abertzaleak deituta, gaur 20:00etan bilera egingo dute Kultur Etxean. Egungo egoera politikoa izango dute mintzagai. Antolatzaileek herritar guztiei deia luzatzen diete bertan parte hartzeko.

VILLABONA ▶

Kontzertua, hiru talderekin, Gaztetxean

Villabonako Gaztetxean hiru taldek kontzertuak eskainiko dituzte gaur gauean. 22:00etan hasiko dira emanaldiak. Lehenengo taldea Itzalak izango da. Tradizionalak ez diren kanta euskaldunen bertsoak egiten ditu. Ataka! talde nafarraren txanda izango da ondoren. Xabier Silveira bertsolaria aritzen da abeslari lanetan. Azkenik, Nun-bait taldearen musika izango da entzungai.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

UGARTE ▶ JAIK

Hiru jai egun eta hiru zaldi ikuskizun

Gurdian, karreran eta lehian ariko dira

NEREA URBIZU

Ugarten urteko asteburu garrantzitsuenetakoa prestatu dute bizilagunek, festei hasiera gaur emango baitiote. Errosarrioko Amaren jaiak gaur 20:30ean hasiko dira.

Zaldiek leku garrantzitsua izango dute bihar Ugarteko festetan: zaldiak nonahi izango dira. Zaldiek gidatutako gurdia izango da bihar, lehengo urtean bezala, eta Amezetako bikote batek prestatuko du hau guztia.

Arratsaldean zaldi lasterketa izango da, 18:00etan, hain zuzen. Eguraldi desatsegina egingo balu, bertan behera ge-

ratuko litzateke. Gauean, aldiz, bi zaldi eder ikusi ahal izango dira, harriarekin lehian izanik. Aldi berean, larunbata umeen eguna izango da, puzgarriekin, auto txikiekin eta baita zaldia- ren gurdian ere.

Horrez gain, zaldi lasterketa- ren ondoren txokolate bero- roa prestatuko dute ugarte- tarrek, denek dasta dezaten.

Etzi, harri-jasotzaileak ere izango dira Haimar Irigoien, Jo- seba Ostolaza eta Goenatxo II.a.

Musika, noski, ez da faltako hiru egun hauetan, izan ere, Xabier, Kupela eta Laja eta Lan- dakanda trikitilariak ariko dira: ez da alaitasuna faltako.

EGITARRAUA ▶ EGUNEZ EGUN

GAUR

20:30. Kanpai jotze eta suziariak.

21:00. Herri afaria.

22:30. Xabierrekin erromeria nahi adina dantzatzeko.

Atsedendian. Toka leihaketa.

BIHAR, LARUNBATA

11:00. Meza Nagusia

Ondoren. Gaztetxoan arteko pilota partidak, Ugarteko pilotalekuan.

Umeen eguna. Haurrentzat

hainbat ekitaldi. Puzgarriak, goizean eta arratsaldean,

12:30etik 14:00etara eta

15:30etik 19:00etara. Kart-ak

edo auto txikiak arratsaldez,

15:30etatik 19:00etara.

16:30. Ugarteko VII. Mus Txapelketa.

Arratsaldean zehar. Lehengo urteko arrakasta ikusita zaldia karroarekin ibiliko da, nahi duenak Ugarten zehar ibilalditxoak egiteko.

18:00. Zaldi karrera. Eguraldi txarra egingo balu bertan behera geratuko litzateke lasterketa.

Bukatutakoan. Txokolata pasteltxoekin emango dute bertaraten direnentzat, elkartearen aurrean.

21:00. Zahagi ardoa.

22:30. Kupela plaza taldearen emanaldia.

Atsedendian. Ikuskizun «bitxia»: bi zaldi harriarekin leihan ariko dira.

ETZI, HILAK 8

11:30. Meza Nagusia.

Jarraian. Hamaiketako plaza, etortzen diren guztientzat.

Ondoren. Ingurubkoa.

Bazkaldu aurretik. Laja eta Landakandaren trikitixa saioa, bazkaltzera alai joateko.

18:00. Herri kirolak: harri- jasotzaileak izango dira.

Haimar Irigoien, Joseba Ostolaza eta Goenabxo II.a.

Ondoren. Ingurubkoa

dantzatuko dute.

20:30. Sagardo dastaketa

izango da.

Bukatze. Laja eta

Landakandaren trikitixa

emanaldiarekin festei amaiera

emango diete.

PILOTA ▶

Asteburuko partidak

Beotibarren, Amezetan eta Alkizan

N. URBIZU

Gaurko Aurrera-Saiazen parti- dak hauek dira: Alkizan bana- kaka jubenilen artekoa izango dute Erniopekoen aurka, la- runbatean 16:00etatik aurrera.

Beotibarren gaur 20:00etan Ataungoen kontra ariko dira 1. mailako jubenilak. Gero In- txaurrundoko 2. mailako senio- rrekoen kontra. Amezetakoan kontra 1. mailako seniorrak ariko dira 21:00etatik aurrera. 3. mailako seniorrek Zazpi-Itu- rrikoen kontra jokatu dute

Beotibarren bihar, 10:30ean. Jarraian, Elordi-Herrigintza es- kualdekoen kontra.

Zazpi-Iturrik Amezetan jo- katuko dituenak hauek dira: 20:00etatik aurrera, jubenilak Urnietakoan kontra jokatu- ko du; gazteen mailakoei Anti- guokoak arerio izango dituzte. 3. partida nagusietako bikotee- tako batek Añorgako bikotea- rekin ariko da.

Bihar Amezetan 17:00etan Zazpi-Iturriko kadeteak, bana- ka eta binaka, gazteen binaka- koa eta nagusiak ariko dira.

(KUTXA BIZITZA-ASEGURUA)

ZU BIZI ONDOREN ERE BIZIA DAGOELAKO.

*Gure laguntza osoa duzu
maiteen dituzunak
babesteko.*

Zuretzat eta zure familiarentzat etxe baten jabe izatea, horra ahalegin handiz bete duzun ametsa. Zure familiak etxe horretaz gozatzeko eskubidea du noski, eta ezerk ez luke eragotzi behar hori. Izan ere, **Kutxa Bizitza-Asegurua** duzu hori bermatzeko modurik errazena.

Guretzat ere zure familia baita garrantzitsua.



"Biharko Vida y Pensiones, S.A."-rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA
Tel.: 943 65 19 93

kutxa
zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

EUSKARA ▶

Euskara ikasteko eskaintza bateratua, Anoetako eta Irurako Udalek eta Ikastolek

Matrikulazio epea zabaldu dute dagoeneko, eta hilaren 11ra arte izango da izen emateko aukera; ikasturtea urrian hasi eta ekainean amaituko da



Esker eskuin, Migel Amenabar, Marimi Ugalde, Fidel Azpiroz eta Koldo Aldabe, herenegun buruturiko prentsaurrekoan. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Marimi Ugalde Irurako alkatea, Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Daniel Maiza Anoetako Ikastolako zuzendaria, Koldo Aldabe Anoetako Ikastolako

lehendakaria, Marisa Alvarez Irurako Ikastolako zuzendaria eta Migel Amenabar Irurako Ikastolako lehendakariak eta Idoia Olano euskara teknikariak prentsaurrekoa eskaini zuten herenegun Iruran. Helburua, Anoetak eta Irurak euskara ikasteko eskaintza bateratua egin dutela helaraztea.

Irura eta Anoetako herritarrek euskara ikasteko aukera izango dute gaurtik. Izen-ematea Irurako edota Anoetako udaletxean egin beharko da hilaren 11 baino lehen. Asteazkenetik orduko eskolak izango dira eta ikasturtea urrian hasi eta ekainean amaituko da.

Aipatu, Iruran edota Anoetan bertan eskolak eman daitezkeen, gutxienez hiru talde osatu behar direla, talde bakoitza sei laguneko osatua izan beharko duelarik. Aukera hori ongi ez datorkionarentzat, ordea, bada beste aukerarik; maila eta ordutegi aukera zabalagoa izango baita eskualdeko bi euskaltegi hauetan: Tolosako Aitzol Udak Euskaltegia eta Tolosaldeko AEK Euskaltegia.

Fidel Azpiroz, Anoetako alkateak esan bezala «erronka handia eta interesgarria daukagu aurrean, euskara arloan gabeziak dituen jendea kontutan hartuta», izan ere, «eguneroko bizitza guztiz euskalduna izaten saiatzen» direla adierazi zuen. Era berean, euskara ikasleei deialdia egin nahi izan die, «jendea euskara ikastera animatu dadila euskaldun izan dadin», modu horretan, «euskara berreskuratzeko».

Marimi Ugalde Irurako alkateak, berriz, «euskaldunok euskaraz bizitzea lortu nahi dugu» baieztatu ekin zion prentsaurrekoari. Ondoren, euskara ikasteko hiru multzotan banatu zituen ikasleak: euskara jakin baina idazteko gai ez direnak, euskararik ez dakitenak eta etorkinak. Modu horretan, helburua «talde homogeneoak sortzea litzateke» gaineratu zuen.

Koldo Aldabe Anoetako Ikastolako lehendakariak Euskaraz Bizi taldearen sorrera eta eginbeharrak gogoratzeaz gain, zera esan zuen euskara

ikasteko lagunei zuzenduz «haurrei euskara ikasteko aukera eskaini zaien bezala, berriak ere saltoa egin dezatela euskarara».

Hamaika erraztasun

Eskolara joan nahi ez duenak edota ezin duenak ere euskara ikas dezake *Autoikaskuntza* programaren bitartez. Modu honetan, ikasleak internet bitartez burutu dezake ikasturtea. Asteazkenetik, ordea, eskolara joan beharko du, irakasleekin tutoretzak egin edota dira: herrian erroldatua izatea edota eskoletako asistentzia %80koa eta probetxuzkoa izatea, esaterako. Ikasleek, jubilatuek eta langabetuek ere diru laguntza jasotzeko aukera izango dute matrikula ordaintzerakoan.

Bigarren erraztasuna diru laguntza da, ikasturtearen amaieran matrikulazioaren balihoa bueltatu egingo baitzaie ikasleei. Horretarako, ordea, baldintza batzuk bete behar dira: herrian erroldatua izatea edota eskoletako asistentzia %80koa eta probetxuzkoa izatea, esaterako. Ikasleek, jubilatuek eta langabetuek ere diru laguntza jasotzeko aukera izango dute matrikula ordaintzerakoan.

IBARRA ▶

De Juanaren aldeko giza katea gaur, 19:30ean

Gaur arratsaldeko zazpi eta erdietan Iñaki De Juana preso donostiarrak gose greban 62 egun betetzen dituela eta, haren aldeko giza katea egingo dute Ibarako kaleetan zehar. Giza katea plazatik abiatuko da, Ekaitz Aramendiren urtebetetze egunerako argazkia atera ondoren.

LEABURU ▶

Dantza ikastaroak larunbatetan

Larunbat honetan hasiko da haurrentzako dantza ikastaroa Leaburun. 3 eta 9 urte bitarteko haurrek, 11:30etik 12:30era izango dute eskola. 9 urtetik aurrerako haurrek, berriz, 10:30etik 11:30era. Ikasturte guztiko kuota 12 eurokoa izango da eta kontu korrante bitartez ordaindu beharko da Kutxako honako zenbakian: 2101 0043 1100 0323 8383.

LEABURU ▶


Gimnastika eskolak hasiko dira hilaren 9an

Gimnastika eskolak antolatuta dituzte astelehen eta asteazkenetan 20:45etik 21:45era. Hasiera eguna urriaren 9a izango da. Kostuari dagokionez, 12 euro ordaindu beharko dira hilabetero Kutxako kontu korrante zenbaki honetan: 2101 0043 1100 0323 8383. Ikastaro gehiago nahi izanez gero, 943 67 59 31 edota 943 68 22 28 zenbakian egin daiteke proposamena.

BELAUNTZA ▶

Liburutegia kalean, gaur arratsaldean

Gaur, 17:30etik 20:00etara, liburutegiak herriko plazan hartuko du toki Liburutegia Kalera ekimenaren bitartez. Modu horretan, herriko haur eta helduek aurtengo berrikuntza topatu ahal izango dituzte. Liburutegia Kalera ekimenaren irakurle txartelik gabe ere liburuak etxeratze-ko aukera izango dela jakinarazi dute.



Salgai (Tolosa) Larramendi kalea. 100m². 3 logela, egongela, sukalde bainugela eta igogailua.
Salgai (Tolosa) La Estrella. 93m². Egongela, 3 logela, sukalde eta bainugela ekipatutak. Garaiea aukeran.
Salgai (Tolosa) K/Nagusian 50m²-ko atikoa. Erdi eraberritua.
Salgai (Ibarra) Ibarra 90m². Eraberritua estreinatzeko. Aparta.
Salgai (Aitua) San Gregorio. 60m². 2 logela, egongela, sukalde, bainugela. Eraberritua estreinatzeko.
Salgai (Legorreta) Baseria. 180m²-ko 2 solairu. Eguzkitsua eta bistekin.
Salgai (Legorreta) Baseria. 180m²-ko 2 solairu. Eguzkitsua eta bistekin.
Salgai (Zumarroga) Baseria. Bizitzera sartzeko prest. 600m² lur saila barne. Etebizitza 450m².

943 69 71 96 • 675 705 268
Korrore Kalea 50

ASTEASU ▶ EZBEHARRA

ERREDAKZIOA

Asteasuko Upazan auzoan da-
goen Arretxe baserrian sutea
izan zen atzo, 11:30ak aldera,
eta erabat erre egin zen. Base-
rrian bizi ziren lau lagunek ez
zuten kalte pertsonalik izan.
Sua baserriaren atzealdean
hasi zen eta berehala hartu
zuen eraikin guztia. Suhiltzaile-
ak iritsi orduko teilatu guztia
su hartuta zegoen.

Bizilagunen arabera, litekee-
na da sutea zirkuito labur ba-
ten ondorioz gertatu izatea.
Han bonbila bat omen zegoen
eta horri egotzi diote gertatuta-
koa. Dena den, Ertzaintzak ez
daki oraindik ziur zerk eragin
zuen sua eta ikerketa lanetan
jarraitzen du.

Kalte pertsonalik ez badira
izan ere, kalte materialak han-
diak izan ziren. Izan ere, ezin
izan zuten ondasunik etxetik
atera eta ikuiluan zituzten txe-
korrak ateratzeko tenorea bai-
no ez zuten izan.

Ezbeharraren aurrean, Aste-
asuko Udalak berehalako neu-
rriak hartu zituen. Horrela, la-
rrialdietarako kasuetarako
duen etxebizitza aterbetu du
Arretxen bizi zen sendia. Soi-
nean zutenarekin bakarrik ate-
ra ahal izan ziren sutetik.

Arretxe baserriak 400 urte
baino gehiago ditu. Hormak
zutik gelditu dira, baina barru-
ko zutabeak eta teilatua txikitu-
ta geratu dira. Suhiltzaileak
egunean zehar bertan gelditu
ziren su txikirik ez zedin ber-
piztu kontrolatzeko.

Gutziz kiskalita utzi du sute batek Arretxe baserria

Kalte material handiak eragin ditu, baina bizilagunek ez dute zauririk jasan



Suhiltzaile bat Arretxe baserriari ura botatzen, atzo eguerdian, su txikirik berpiztu ez zedin kontrol lanak egiten. I. GARCIA

LEITZA ▶ POLITIKA

Maxurrenea «herriari itzultzea» exijitu du Udalak azkeneko osoko bilkuran

18/98 auziaren eta presoengatik inguruko mozioak ere onartu zituzten

NAIARA GARZIA

Aurreko ostiralean udaletxean
egindako osoko bilkuran Uda-
lak Maxurrenea «herriari itzul-
tzea» exijitu zuen. Partidu poli-
tiko guztiek parte hartu ez ba-
zuten ere —UPNk ez joatea
erabaki zuelako— Aralarrek,
EAK eta Larrain herri platafor-
mak 4 mozio onartu zituzten.
Honekin batera, hainbat gai
izan ziren hizpide, hala nola,
UPNko Daniel Mujika zinego-
tziairen karguari uko egitea eta
Evaristo Oronozek hirigintza
planaren inguruan egindako
zenbait aldaketa. Mendiko lar-
ren mantenuaren gainean ere
aritu ziren, baina gai hau ez zu-

ten bozkatu, Patxi Saenz alka-
teak azaldu zuenez, gai honi
buruzko gestioa aldatu egin
delako. Ondorengo mozio
hauek onartu zituzten:

18/98 SUMARIOARI

BURUZKOA

Konpromisoa. Eskubide Zibil
eta Politikoaren aldeko jarrera
aktiboa izateko konpromisoa.
**Sumarioaren izaera politikoaren
salaketa.** 18/98 sumario-
aren eta bestelako sumarioen
izaera politikoaren salaketa.
Sumarioak artxibatzea. Makro-
prozesua bertan behera
uztea eta sumarioak artxiba-
tzea.

Audientzia Nazionala desegi-

te. Udalak epaiketa hauen
kontrako jarrera, konponbide-
aren aldeko jarrera aktibatzea
dela ulertzen du. Beraz, Au-
dientzia Nazionala den epaite-
gi berezia desegiteraren alde
azaltzen da.

**Gastu ekonomikoari aurre egi-
teko konpromisoa.** Makro-
epaiketa honek sortarazten
duen gastu ekonomikoari au-
rre egiten laguntzeko bitarte-
koak bideratzeko konpromi-
soa.

**PRESO POLITIKOEN EGOERA-
REN ALDARRIKAPENA**

Iñaki de Juanari elkartasuna.
Euskal preso politikoaren eta be-
reziki Iñaki de Juanaren aurka-

ko zigor politika bertan behera
utzi eta bere berehalako aska-
tasuna exijitzen dio Espainiako
Gobernuari.

Legea betetzea. Legeak dioen
bezala, gaixotasun larri eta
sendaezinak dituzten eta zigo-
raren 2/3 beteta duten preso-
en askatasuna eskatzen du
Udalak.

**Presoak konponbide proze-
suan parte hartzeko eskubi-
dea.** Presoak Euskal Herriak
Espainiako eta Frantziako esta-
tuen aurka duen gatazkaren
ondorio diren heinean, ireki
berri den konponbide prozesu
honetan ere parte hartzeko du-
ten eskubidea aldarrikatzen
du.

DIMISIOA

Daniel Mujika
zinegotziak dimisioa
aurkeztu zuen arazo
profesionalak eta
pertsonala argudiatuz

MAXURRENEA

**Herritarren beharretara ego-
kitzea.** Izan ere kuartel militar
batek ez baititu herritarren be-
harrak asetzen.

Maxurrenea herriarentzat. Ja-
danik Guardia Civilak Maxu-
rrenea okupatu zuela 3 urte
bete dira, herriaren boronda-
tearen aurka.

ELOLA
ALTZARIAK

bede

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako protektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 6a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

17

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Astelehenean Ekaitz Aramendik 27 urte beteko dituela eta, gaur argazkia aterako dute San Bartolome plazan, 19:30ean. Ondoren, Iñaki De Juanaren aldeko giza katea egingo dute herriko kaleetan zehar.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa, azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. *Espereintziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma izango da ikusgai, 22:30etik aurrera, 4,5 euroren truke.

Alegia. Gaztebexan, *Viento de tierra* filma, 21:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Lehen pitxerra zerbitzatu dute VIII. Garagardo Festan

TOLOSA ▶ Atzo ireki zituen ateak VIII. Garagardo Festak. Bi berrikuntza nagusi izango ditu aurtengo edizioak: bata lekuarena, Zerkausi eraberrituan lekutu baitute, eta gainera, bertako bigarren solairu ere erabili ahalko da, hain zuzen ere, afariak egiteko. Bestea, datarena, izan ere, irailaren erdialdera egin ohi dute normalean Garagardo Festa Tolosan, baina aurtun Tolosaren 750. urteurrena dela eta, atzeratu egin beharra izan dute. Berrikuntza edo aldaketa hauetaz gain, ohiko eskaintza izango du Festak. 20 garagardo mota baino gehiago dastatzeko aukera izago da, eta jakie dago-

kionez, ukondoa, saltxitxak, patatak, saxoniarrak, euskal pastela eta gazta izango dira aukeran. Bestalde, horretaz gain, kultur ekitaldi andana antolatuta dituzte: bihar, Tolosako Banda ibiliko da kaleetan zehar, 20:00etan; etzi, 17:00etan. Pedal Eguna antolatuta dute San Frantziskon; ordu berean, Txirri Mirri eta Txirribiton junior pailazoaren emanaldia izango da Leidor aretoan; 20:00etan, berriz, Vista Alegre txarangak joko du kaleetan zehar; etzi, 17:00etan, zirkotailerra egingo dute Trianguloan, eta, 18:00etan, ajedrez erraldoia Plaza Zaharrean, Tolosako Xake elkartearen eskutik. N. URBIZU

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Leraiek 9 urte 11n eta Ekaitez 7 urte gaur. Zorionak poxpolinak, denon partetik.



URTE ASKOAN

Ane Peña Olazabal (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak ebekoen eta bereziki Jon Ander eta Loinezen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletzeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



jantzi
hitzaren
jertseak

HITZaren egoitzetan salgai